

Katalanak eta euskaldunak: Alvarez de Miranda epaile

Deia, 1977-09-04.

Katalanak eta euskaldunak ez gara berdinak.

Egi borobil hau ba genekien Honorable Josep Tarradellas-ek ezarri dizkion ertzak erakutsi aurretik. Esan berria duanez: "Guk atzerrian Generalitat-eko Gobernu bat sortu izan bagenu, orain euskaldunei gertatzen ari zaien ber-bera gertatuko litzaiguke, behar bada: barne-borrokak eta belaunaldi zahar eta berrien arteko aurkakoak. Hau dena ebitatu dugu Cataluñan".

Ez dakit Tarradellas jaunak hori ebitatu duen, ikusteko dago oraindik *saga* honen amaiera. Baina, hala gertatzen bada ere, ez zaio Gobernu-falta horri zorretan geratuko.

Errazkeri bat esan du hemen Tarradellas-ek.

Katalanak atzerrian Gobernu bat izan ez badute, ez da izan egokiago iruditu izan zaielako, honelako Erakunde bat irau arazteko kemenik izan ez dutelako baizik. Askotan hitz egin izandu dut atzerrian katalanekin, eta beti gure Jaurlaritzaren irautearen mirariaz aritu zaizkit. Guda amaitu eta gero, euskaldunak bakarrik izan dugu, egietan, nortasun bat munduan; Errepublika-ko gobernuak berak baino itzal gehiago izandu du non nahi batez ere hego-Amerikan. Agirre jauna Lehendakari zein, herri handi askotan hartua izandu da ofizialki Kongresoetan; eta gero, 1960 ezker, Leizaola jauna ere titulo eta itzal berdinarekin. Euskaldunok akats asko izango ditugu, baina gauzak seriotasun eta errespeto batekin egin eta gero irau arazi honetarako, eman dugu proba franko. Katalanak ba dituzte berezko birtute asko, eta batzu guk baino handiagoak, baina hontan ez digute zer erakutsirik.

Guk gure arteko arazoak, eta asko, eta larriak baditugu, ez da Jaurlaritza honi berrogei urtean gizonki eta arduratsu eta erantzule irau arazi diogulako.

Ba dira beste arazo franko, baina ez hau.

Eta katalanak bere Generalitatea eta berjabetza guk baino lehen lortzen badute, ez da orain arte, berrogei urte luzean, buru ageri bat gabe, galduta bezala, irau dutelako.

Eta oraindik ikusteko dago Tarradellas berak eta berez daramakian jokuaren zoria.

Hemen, egiazko arazoa bestea du.

Katalanak eta euskaldunak bi nazionalitate oso ezberdinak dira historiaz, eta hemendik kultura aldetik sortzen diren adar guziaz. Eta gure herriaren erantzunak, onerako eta txarrerako, ez dira inoiz berdinak izan.

Gudaurre, guda eta gudaosteak, denak, ezberdin jokatu ditugu.

Baina ez nuke orain hauzi hau aztertzen geratu nahi. Kazetaritzan ari garenez, nahikoa dut urten berria den elkarrizketa baten galde-erantzunak ematea.

Caracas-etik etorri berri zait *Resumen* aldizkaria.

Honen zuzendari den Jorge Olavarria (benezolarra osoa, ez joanberrietakoa) eta Alvarez de Miranda-ren artean izan duten bat argitaratu dute:

Jorge Olavarriak: Zeintzuk dira euskaldun eta katalanen nahiak?

Alvarez de Miranda: Ba dira diferentzi nabarmenak euskaldunak ia askatasun osoraino joan nahi dute: katalanak. Estatuto bat aski dute. Generalitatea. Joan diren hauteskundeetan, euskaldunak herritasunerako bokazio handiagoa erakutsi dute, indar nabarmena agertu dute, batez ere EAJ-ak; eta Kataluñan, berriz ez. Euskaldunen lehenengo arazoa, abertzaletasuna da, eta katalanena, berriz, soziala eta ekonomikoa.

Hau argi erakutsi du, ba, espainiar batek atzerrian.

Egia baita.

Hortan dagoen proba bezala hartu genezake. Eusko Jaurlaritzan bati orain arte irauarazi diogunaren eragina, eta katalanen eza.

Eta seriotasuna non dagoen irakurleak berez erabaki beza.

Leizaola jauna ez da protagonismoaren garaia iritxi zaionean hortan erori, herriak aukeratu dituen gizonen eskeini die.

Tarradellas-ek ez du urte guzi hoietan buruhauste handirik herriarengatik jasan, bere etxean egon da lasai, eta gaurko egokiera hau etorri den bezain laster jarri du berea, bere protagonismo egarria, martxan.

Ondoreak, ikusiko dira.